


ttipi-ttapa

1990eko Uztailak 5

41. zenbakia

dohain banatzen da

San Martin Ikastetxea:
praktikan
oinarritutako
lanbide ikasketak



Publizitaterik onena preziorik ttikienean

Zure iragarkiak Bortziriak, Malerreka, Bertitzarana, Baztan, Leitza, Goizueta, Zugarramurdi, Sara... eta bertze hainbertze herritara zabaldu nahi badituzu deitu 63 11 88 telefonora

HAMASEI MODULO
(ORRIALDE ERDIA)

12.000 Pzta.

MODULO BAT

900 Pzta.

BI MODULO

1.800 Pzta.

HIRU MODULO

2.700 Pzta.

SEI MODULO

5.400 Pzta.

NON-ZER

4. Beharrezko telefonoak.
5. Agenda.
6. Irakurleak mintzo.
7. Hontaz eta hartaz.
- 9/27. Herriz-herri; Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Leitza, Sara, Eratsun, Goizueta.
28. Erreportaia. P. ASTIZ
30. Elkarriketa. JUAINAS
32. Kirolak. MATTARI
33. Aro berri baten atarian. F. ALTZUGUREN
34. Merkatu Ttikia.
35. Denborapasa. ENBIDO

Orain dela 16 urte ekin zion San Martin Eskolak, Nekazal Lanbide Eskola izateari eta bide batez, gure herrietako ohizko bizimoduarentzat neska mutilak prestatzeari; Nekaritza, Mekanika, Etxeko Ekonomia eta Forestala irakatsiz **28. or.**



Uztailaren 6an, eguerdiko 12etan botako den altxaferuarekin batera hasiko dira 5 egun iraunen duten bestak Lesakan. Erdiko orrialdeetan, egitarauaren xehetasunak ikus ditzakezue. **17-22. orr.**



"Udalek ez dute behar bezalako ardurarik hartzen Malerreka Euskara Mankomunitatea martxan jartzeko" dio Ines Gereka, Malerreka Euskara Zerbitzuaren arduraduna denak. **30. or.**



Baztan - Malerreka - Leitzaran eta Bortzirietako Kirol Batzordeak, kirol aktibitateak antolatzeke dirulaguntza deialdia zabaldu du. Muga eguna, uztailaren 25a izanen da **32. or.**

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA. Tfnoa: 63 11 88

Laguntzaileak:

Bortzirietako Euskara

Mankomunitatea

Nafarroako Gobernua

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** Roman Harribilaga, Oskar Txoperena, P. Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Mañone, Leitzako Ikastari Euskaltegia, Patxi Petrirena, Olain Elkarte, Telletxea Argazkiak, Patxi Larretxea, Mattari eta Enbidok

Inprimategia: Jomisa (Irun)

Tirada: 2.900 ale

Lege-Gordailua: NA-1324/85

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen halabeharrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

BEHARREZKO TELEFONOAK

SOS Nafarroa088

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo452367 / 580235

Doneztebe594300

Lesaka637428 / 637336

Leitza510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun587039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaie592024

Ituren594183

Sunbilla594283

Goizueta514067

Igantzi637755

Arantza634131

Bera630929 / 630036

Etxalar635105

Urdazubi599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614444

Nafarroako ospitalea251500

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia262700

Gurutze Gorria226404

ANBULANTZIAK

Oitz594242/594342

DYA

Lesaka (larrialdiak)(943) 464622

Elizondo (larrialdiak)171717

FUNERARIA

Lesaka637404

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaie592044

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leizaran515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:

Elizondo580730

Lesaka637154

Bera630104

ABERIAK:

Iberduero594335/594336

Harmajakintza

Lasarte, belarrak edo koronak?

Lasarte abizenaren armarri zaharrenean, urrezko fondoaren gainean, hiru belar ikusten dira.

"Las-arte" hitza entzunda, "las" hori landare izena izan beharko dela pentsatzen dugu, eta horregaitik armarriak halako belarrak ugari diren toki bat adierazten duela.


Zalantza hau argitzeko, Jose María de Lacoizqueta Narbarteko apaiz zenaren landareen liburu famatua kontsultatu dut (Diccionario de los nombres eúskaros de las plantas, Iruñea, 1.888). Baina ez dut erantzun argirik aurkitzen. Lasartetarren belar famatua, "lapaitza" ote da? Auskalo!

Hala ere, nahiz eta zer motatakoak ongi ez jakin, argi dago belarrak direla.

Baina urteak pasa ondoren, gizasemeen oroitzapena makaltzen da eta lasartetarren ahanzte hori probetxatu egin zuten, beren haundikeri nahiak gehitzeko. XVI gizaldirako, eta eskudoari bi otso gaineratu ondoren, belarren asuntoa jadanik ahaztua zegoenean, "koronak" direla esaten dute.

Modu honetan, gure lasartetarren mendiko belar-soro apaletatik, aristokraziaren esparru urrezkora pasatu ziren.

PIO BENEDICTO DE URRUTIA



IRUÑEA

5 ORTZEGUNA

—**Lesakan**, arratsaldeko 7,30etan, herrian zehar trikitilari saioa. Gaueko 9etan, Kasinoan, Herri Afaria, Lesakako Trikitilari, txiste kontalari eta Manolo Aroze-na eta Bittor Elizagoien bertsolarie-kin.

6 ORTZIRALA

—**Beran**, arratsaldeko 8,30etan Herriko Etxeko areto nagusian, harrera bat eskeiniko dio Udalak Berako kirolari guziei, iragan den-boraldian lortutako arrakastagatik. Ekintza berean, aipamen berezia egin eta opari bat emanen zaie denboraldian nabarmendu diren Kirolari, talde eta prestatzaileei.

—**Lesakan**, Musika Eguna. Arratsaldeko 2,30etan, Kasinoan, Lesakako musika taldeen bazkaria. Arratsaldeko 5,30etan herrian ze-har ibiliko dira eta 7etan, Plaza Zaharrean, Talde guztien kontzer-tua. Gaueko 12etan, dantzaldia Izadi Taldearekin.

7 LARUNBATA

—**Lesakan**, San Fermin eguna. Lesakako bestak. Gauez, dantzaldia Basakabi taldearekin.

—**Azpilkueta**, San Fermin he-rriko bestak.

13 ORTZIRALA

—**Ituren**, 13tik 17ra Herriko bestak.

15 IGANDEA

—**Sunbillan**, Goizeko 12etan Baztan Bidasoako Herri Kirol Txapelketaren lehen topaketa.

16 ASTELEHENA

—**Lesakan**, igeriketa ikastaroa-ren hasiera.

OHARRAK

—Nigeriara eramateko, Futbol zapata (zaharrak edo berriak) behar dira. Norbaitek baldin baditu so-bran, dei dezala mesedez 631188

telefonora edo bertzenaz *ttipi-tta-pako* bulegora ekar ditzala.

DEIALDIAK

—**Elizondo**, Baztandaren Bil-tzarra egunean Bazkaria serbitza-tzeko neska mutilak behar dira Lagundu nahi dutenek, uztailaren 19a baino lehen beren izena eman behar dute. Telefonoak 452045 (Txaro), 581082 (Jexux) edo ortzi-raletan, 8etatik aintzinerara, Baztan-darren Biltzarren bulegoan.

—**Igantzi**, Bestak antolatze-ko hurrengo bilera uztailaren 9an arra-tsaldeko 7,30etan izanen da Biltso-kin.

GOARDIAKO BOTIKAK

—**Uztailaren 7-8an**, Bera, eta F. Iturralde (Elizondo).

—**Uztailaren 14-15ean**, Arantza eta F. Lezaun (Elizon-do).



Tfnoa: 63 11 38
Pilota Leku ondoan BERA



Legia 11 - 63 06 64 BERA

ARKUPE
GOXOTEGIA
Tfnoa: 45 20 21
IRURITA

Eskisari
jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013
ELIZONDO

ETXEGARAI Telebistak eta Bideoak
Antena kolektiboak eta
banakakoak
ELEKTROGAILUAK
BIDEO KLUBA
Eztegara, 4 Tfnoa: 63 05 70 BERA

Lara

MUSIKA DENDA

San Esteban 37
Tfnoa: 63 10 59
BERA

Ongi etorria, Lekarozko Eskola

Azaroan, duela ehun urte, ikasleak etorri ziren Lekarotzera. Santanderretik etorri ziren Pasaira itsasontzi batean eta Pasaitik Lekarotzera "karrikotxean".

Ehun urte, bada, egon dira prai-leak Lekarozko eskolan. Eskola berezia. Bertzeak baino hobekiago prestatua beti.

Orain saldu egin dute, praile gutxi eta behartuak gelditu dira. Nafarroako Gobernuak erosi du 525 milioi pezeta ordainduz, eta inguruko ikasle guztientzat izanen da. Datorren kurtsoetik BUP erakutsiko da.

Hori lortzea garrantzitsua izan da. Eskola bezala, Unibertsitate Publi-koarentzat laguntza udaran, kurtso bereziak, bilera bereziak —seminarioak, kontzentrazioak...— kirol lekua etabar.


Ez da erraza izan hau lortzea. Gobernuak interes gutxi; beste alde-tik, "enpresa" bereziak ondotik.

Lana egin dutenak, erne ibili di-renak izan dira, eta lortu egin dute azkenean jendearentzat orain arte zaila zena, aunitz ordaindu behar ze-lakoz.

Kultura eta lanari buruz inpor-tantea, bada, zonari begiratu. Ho-rregatik ongi etorria. Ordua zen Nafarroako euskal zonak eskola berezi bat lortzekoa.

R.A.

Sail honetan agertzeko bidali nahi dituzuen gutunak, makinaz idatzitako 30 lerro baino gehiago ezin dezakete izan. Kartak, izen-deituraz eta karneta zenbakiaz izenpetuak bidaliko dira. Dena den zuen datu horiek agertzerik ez baduzue nahi, ezizen edo izen-goitiz argitaratuko genuke.



BEINTZAKO OSTATUA

Tfnoa.: 59 40 14
BEINTZA - LABAIEN



JATETXEA

Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO



KIROLAK ZELA

Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98
BERA

Santiago
40



ELIZONDO



100m²ko etxebizitza
48m²ko garajea
350m²ko jardin partikularra
Kalitate onekoak
Emateko prest

Oieregin, Bertitz
eta Udako Uni-
bertsitate izanen
denaren on-
doan, luxuzko
pisuak, garaje
eta jardinekin.

Informazioa: EZKALO

Tfnoa: (948) 59 40 54



130m²ko etxebizitza
58m²ko garajea
350m²ko jardin partikularra
Kalitate onekoak
Emateko prest



DROGERIA

Altzate 37, Tfnoa: 630388 - BERA

BOTXO ostatua

Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA

Egunkari Eguna Lesakan

Uztailaren 6an, Plaza Zaharrean

Ortziralean, uztailak 6, Lesakan Egunkari Eguna izanen da. Egun honetan, Plaza Zaharrean besta tiki bat egingen da, elementu zentrala, bertan jarriko den Egunkari erraldoia izanen delarik. Horretarako, aintzindik jasotako berriak idatzi edota marraztuko dira.

Horretaz aparte eta aukeraz baliatuz, Egunkariaren alde dirua ateratze-

ko dauden 1.000 pzta.ko bonoak eta 5.000 pzta.ko akzio partaidetzak jarriko dira salgai, kamiseta, txapa eta pegatinez gain.

Ekintza hauek, Egunkaria Sortzen taldeak argitaratu nahi duen Egunkariaren aldeko kanpainaren barruan kokatzen dira. Egunkaria Sortzen taldeak 150 milioi lortu nahi ditu, udazkenan Euskal Egunkaria kaleratzeko.



Irailaren 18an hasi eta 28rarte, Bertitzeko Jauregian, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Udako Ikastaroak burutuko dira. Ingurugiroa izanen dute gai zentralizat eta goi mailako enpresa gizon eta teknikoei zuzenduta daude. Lehen kurtsoaren izenburua, "Reconversión al verde de los procesos industriales" izanen da eta bigarrenarena berriz, "Gestión de espacios naturales y sobre Medidas correctoras de impacto ambiental en autovías y embalses".

Egunkaria

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Tfnoa.: 63 11 88

GRUPO



ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

Errekalde

ostatua

BERA

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA

OPARIK

BURDIN TRESNERIA

Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

**OSKORRI
LIBURUDENDA**

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE

**B RADIO
BIDASOA**

SUKALDE ALTZARIAK

Legia, 42 Tfnoa: 63 03 77 BERA

TELEBISTAK
BIDEOAK
ELEKTROGAILUAK

SALMENTA ETA
KONPONKETAK

CONSERVAS MARTIKO, S.A.

Ahatetan espezializatuak



ZURE MAHAIRAKO AHATERIK HOBERENA

Ahate-foi

Gibel-gizena

Urdai azpikoa

Ahate-hegalak

Ahate-izterrak

Tfnoa: (948) 63 07 07

BERA

IZANA ILEAPAINDEGIA

Bidasoa 81, Behea

Tfnoa.: 63 10 55 - BERA

yoan

Zapatadenda

Beraketa, 13 Tfnoa: (943) 62 15 74

IRUN

TXOKO ERRETEGIA

Bazkari, afari eta
gosariak ematen dira

ITUREN

Tfnoa.: 59 44 91

«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat pentsurik
egokiena

Tfnoa: 63 52 14

ETXALAR

OLARI

Jatetxea

Tfnoa.: (948) 45 22 54

IRURITA



ATERPE jatetxea

Mendi ibilaldietarako
Mountain bike bizikletak
alokatzen ditugu
tfnoa: 63 41 79

ARANTZA

Bidasoa karrikako espaloiairen berriztapenerako lanak hastear



ROMAN HARRIBILAGA

Epe laburrean hasiera emanen zaie Bidasoa Karrikako espaloiairen zola berritze lanei. Beren gauzabideaz, zolak dituen eraiketa eta zabalera ezberdinak, sestra edo rasante irregularra eta errepide edo karretera baino baxuagoa izateari konponbide egokia bilatu asmoz ekinen dio proiektuari Udalak. Egoera oker honek ematen dituen arazoan artean, euria egiten duenean ur putzu haundiak agertzearena da; oinezkoiei sortarazten dien eragozpen edo trabekin, errepidean barrena ibiltzera maizegi behartuak direlarik.

Egitasmoaren ezaugarriak

Proiektuaren arabera, espaloi edo azera berria "Estankoko bihurgunea"z ezagutzen den tokitik eta gasolindegia alderako zatian eginen da Baztandik ekarritako harlauza edo losaz. Luzera 1.027mkoa eta bataz bertzeko zabalera 2,30mkoa edukiko du.

Ibilgailuentzako garaje, etxabe eta abarren sarreretarako, espaloian, pasabideak eginen dira zintarri edo bordillo bereziekin.

Bertzalde, espaloiak berriztatu bidenabar, karriketako argien kableak, behe tentsioan elektrikak indarra banatuko duen kablea eta telefono hariarena ere lurpetik ezarriko dira.

Epea eta aurrekontua

"Mariezkurrena SL" enpresak burutuko duen egitasmoa 14.124.193 pezetatiko aurrekontua dauka, BEZa barne, hasi eta lau hilabeteko epean amaiturik egon beharko duelarik.

Eskualdeko zabortegirako lurra eta lizentzia

Udalbatzak bere baimena eman dio Bortzirietako Zaborretarako Mankomunitateari eskualdeko zabortegia kokatuko den herrilur eremuaz jabe dadin, aintzinetik 6 milioitako kanona ordainduz eta noiz-

bait zabortegirik ez balego, eremua Udalak berreskuratzeko baldintzarekin. Aldi berean, lanak hasteko lizentzia ere eman zaio Mankomunitateari, 2.922.786 pztatiko eraikitza tasa ordainduz eta noizbait zabortegirik ez balego instalakuntzaz ere Udala jabetzeko baldintzarekin.

Bortzirietako zabortegia Ibardin alderdian egonen da, herrigunetik 5,5 kmra. Intzolako Bentara darman pistatik joanez, 38.000m²ko orube batetan.

Ur ekarketa dela eta zubia zabalduko

Egunotan Matxain alderditik ur ekarketa lanak burutzen ari direla eta, Ezpondakobordako biltegian pilatzen den 1.000m³ ur kopurua Suspeltiki alderdian eraikiko den araztegi edo depuradorara eraman garbitzeko eta ondoren, Legiako sarearekin lotzeko balioko duten hodi edo tuboak paratu beharko dira. Hauek, Jamotenea ondoan Eztegarra Ibilbidea eta Legia auzoa elkartzen dituen zubi azpitik pasako dira; hala ere, zubia harlauza edo losazkoa denez gero, diagonalean zabaldua izanen da, jarriko diren gabrioen ondoan hodi edo tuboak ezarri. Honetaz baliatuz, espaloi edo azerak ere eginen dira zubian.

Telefonoak paratzeko dirulaguntzak

Udalak oroitarazten duenez, herriaren ingurunean telefono linea paratzeko 125.000 pzt. baino gehixeagoko aurrekontua dutenei dirulaguntza emanen omen du. Baldintzei dagokionez, eguneroko etxebizitza bezala erabiltzen diren baserriak izanen dira lagunduak, merkataletxe eta bigarren egoitzako etxebizitzak baztertuak izanez. Laguntzak, behar diren egiaztagiria aurkeztutakoan, Udalak emanen ditu.

LESAKA

Euskararen astea

M.K.T.

Ekainaren 26an euskararen astea-ri eman zitzaion hasiera Euskara Denona erakusketaren inagurazioa-reakin.

Ale hau argitaratu orduko ekital-di gehienak eginak izanen badira ere, aipatu uztailearen 5ean herri afaria egonen dela Kasino jatetxean trikitilariak, txiste kontalariak eta bertsolariak parte hartuko dutelarik. Uztailearen 6an bestetako bezpera egunean, musika taldeen bazkaria izanen da eta Sanferminetako pro-grama osatuz talde hauek arratsalde-ko 5,30etan herrian zehar ibiliko dira eta 7etan Plaza Zaharrean kon- zertu bat eskeiniko dute.

Euskara denona erakusketa dela eta Lesakako euskara batzordeak erakusketa honen balorazio bat egin zuen:...Euskara denona eta Mankomunitatearen erakusketa. Euskararen alde Nafarroako Administra- zioak jartzen duen pizarra onez hartu arren, zenbait zehaztasun egin beharrean gaude:

- Euskara denona erakusketa honek duen proiektzioa. Euskararen historia bizia eta orokortasuna ez azalduz "zentsura" nabarmena egi- ten duela begibistakoa da.

- Horren osagarri gisa eta errea- litatea hurbilagotik ezagutzeko mankomunitateak panel batzuren bidez, gure hizkuntza bizia dela fro- gatu eta horretarako lanean dihar- duten taldeen errealitatea ere ager- tu nahi izan du. Halaber euskarak duen zabaltasuna Euskal Herri oso- rako hizkuntz tresna gisa.

Bide berean, bertze batzuetan egin dugun bezala, Nafarroako



Gobernuari zera erran nahi genio- ke: Gauza zehatzetarako dirua be- har bada ere, soluzio bideak beha- rrezkoak direla, hau da, kanpaina eta lan iraunkorrak, euskara altxor bat izatetik tresna bizia izatera pa- satzen dutenak: komunikabideak, euskaltegia, funtzionarioen euskal- duntzea, ea. eta guzti hau neurri handiegian Nafarroako Gobernuak

Udal edo talde ezberdinen esku uzteaz gain oztopatu egiten duela.

Modu berean, "Ley del Vascuence" k suposatzen duen me- hatxua salatu nahi dugu...

...aurten bertan hemengo beha- rrei erantzuteko Mankomunitateko Udalek 11.200.000 pza. jarri behar izan dituzte, eta ezin dugu modu egokian hainbat gauza egin. Nafa- rroako Gobernuak ematen duen laguntza askoz txikiagoa delarik 3.400.000 gutti goiti behiti.

Euskara batzordeak Nafarroako Gobernuko ordezkariari eman egin zien balorazio hau.

Bertzalde, haurren aldetik arra- kastatsua gertatzen ari dela erran, erakusketa hau 7 minuto t'erdiko iraupena duen diapositiba emanaldi batetaz, zenbait panelez, 3 ordena- dorez osatuta dago, non, hiru auke- ra ematen diren zenbait gauza eza- gutzeko adibide gisa norberaren dei- turaren jatorria eta... telebista bat non euskarazko itzulpena duten marrazki bizidunen bideoak ikusten diren.

Udalaren 1990.erako aurrekontua (II)

PELLO APEZETXEA

(aurreko alean agertutakoaren segida)

Sarrerak:

Herrian bilduko dena. - •Lur, etxe, hazienda kontribuzioa: 2.799.682. •Industria-merkataritza zerga —lantegi,denda, tailer...—: 1.576.599. •Ibilgailuen zirkulazio zerga edo inpuestoa: 2.050.510. •Ura eta estolderia edo alkantariak: 640.000. •Zabor tasa: 185.000. •Uso eta tortoila ehiza postuena: 1.850.000. •Oihanetatik aterako dena: 14.964.000. *Kanpoko dirulaguntza.* - •Estatuko eta Nafarroako Gobernuek emanen dutena: 34.427.563.

III. Etxalar Ipuin Lehiaketaren sariak

Lau mailatan sailkatuak, 44 ipuin izan dira aurkeztutakoak, 7-8 mailakoetan, "Georges en erokeria" eta "Altxorren desagertzea" izenekoak irabazle gertatu ziren; Iribarreneko Alberto Sansiñenarena lehen-



San Juan egunean mobile eta tresna zaharren erakusketaz gain txistularien eguna ospatu zen

dabizikoa eta Landakoetxeko Beatriz Agirrerena bigarrena. 5-6 mailakoetan, lehen eta bigarren sarituak Xoraxuriko Bordako Ainara Arburua eta Landakoetxeko Itziar Agirre; "Aitor eta bere zangoa" eta "Zuhaitz baten negarra" ipuinekin. 3-4 mailakoetan, Santsineneko bordako Edurne Elizagoienek jaso zuen lehen saria, "Etxe misterioitsua" izeneko lanagatik; bigarrena, berriz, Antxurdeneko Bordako Mikel Goienezek "Xuri tximeleta eta bere lagunak" izenekoagatik. 1-2 mailakoe-

tan, lehen sariak Andutzeko Nagore Antsalas eta Gurutzeko Xabier Leitzaren ipuinak ditugu "Sorgin gaiztoa" eta "Otsoa eta azeria" izeneztatuak.

Partaide guzietan banatu zitzaizkien beren saria, irabazleei berriz berezia. Ipuinak irakurri eta kalifikatu dituztenak, Kontxesi Arangoa, Junkal Alzuguren eta Ainhoa Arburua. Kalitatea, urtetik urtera hobea omen da. Aurten, saritu bakoitzak bere ipuina irakurri zuen bildutako lagun, irakasle eta gurasoen aintzinean.

IGANTZI

San Juan egunean jubilatuen besta

Eguerdian, 45 bildu ziren Biltokin bazkaltzera

OSKAR TXOPERENA

Ekainaren 24a egun markatua izaten dugu Igantzina, eta azkeneko urteetan berezitasun bat izaten du gainera: jubilatuen eguna ospatzen dela. Aurten igandearekin tokatu denez gero izugarritzko jendetza bil-

du zen San Juan Xarren meza entzuterat. Zenbait arazo ere izandu ziren kotxeak izugarri gaizki aparkatuta utzi zituztelako zenbaitzuek.

Eguerdia aldera, Biltokira bildu ziren adintuak, aurten ere bazkari eder batera gonbidatu bait zituen Elkarteak. Egia erran inoiz baino

jende guttiago izandu zen bazkarian, 45 inguru. Bertsolariak ere baziren, Etxeberria eta Garmendia hain zuzen, izugarri animatu zutenak bazkal ondoko giroa. Ondotik ez zen faltatu mus eta bertzelako jokurik.

(bertze aldean segitzen du)





San Juan egunean, 45 jubilatutako bildu ziren Biltokin bazkaltzera

Eskolako inspektorearen azalpenak

Ekainaren 18an zonaldeko inspektorea egondu zen eskoletan gurasoei azalpenak ematera. Irakasleen murritzetarekin deus egiterik ez zegoela erran zuen, Madrildik datorkiolako ordena... Gainera aipatu zuen irakasleren bat sobratuko bali-

tzaio behar haundiagoko herriak badaudela, Legasa adibidez. Datorren urtean, beraz, hiru lehendabiziko mailatan 11 haur egonen dira eta 16 hiru hurrengotan. Jantokiari buruz, berak deus ez zekiela erran zuen eta jantoki horretara joateko prest leudeken haurren zerrenda eskatu zien irakasleei.

Azkenik, "LOGSE" famatuari buruz azalpen batzuk egindakoa joan egin zen.

8 bikote pala txapelketarako

Aurten ere hasteko dago Igantzi-ko Biltokik antolatzen duen Pala Txapelketa. Ekainaren 18an bukatu zen izena emateko epea eta 8 bikotek hartuko dute parte: Alfonso Dus-saubat-J. Javier Urtxegi; M.J. Hita-Josetxo Txoperena; Javier Guerra-Mikel Retegi; Iñaki Hita-J.M. Matxikote; J.R. Etxeberria-Marino Zelaia; M.A. Eugi-Aingeru Irigoien; Carlos Ubiria-J.M. Etxeberria eta Raul Zelaia-Pello Santesteban.

Aipatzekoa da zerrenda ideki dela baita emakumeentzat, baina zoritxarrez, aintzineko urteetan bikote batzuk jokatzeko bazuten txapelketa, aurten ez du bakar batek ere izenik eman. Aintzinago emanen dugu txapelketaren martxaren berri.

ARANTZA

Mendi Komunaletan hobekuntza batzu egingen

Ia 6.000.000 inbertituko dira

JON LARRETxea



Pantaleon, Mendi-komisioko kontzejala

Hobekuntza hauek Azkilarrea auzoan dauden mendietan egingen dira, bertan bazkatzen diren gauduen erosotasuna bilatzen delarik.

Abereendako hamar ur aska, 2.000m.ko zerrakura leku malkartsuak ixteko, pistzina haundi bat ardiak garbitu eta beren kaparrak eta zorriak hiltzeko eta bideak moldatu eta ireki izanen dira egingen diren obrak. Projektu honen kostoa ia 6.000.000takoa da; honako arlo

hauetan banaturik: 1.700m zerrakura, 571.000 pzta.; 7 arketa ura hartzeko, 330.750 pzta.; 3.000m tuberia jartzea 2.361.000 pzta.; 10 ur aska, 630.000 pzta.; pistak moldatu eta berriak ireki, 645.000 pzta; ardiak garbitu eta kaparrak eta zorriak hiltzeko pistzina, 800.000 pzta.

Dirua guzi hau Diputazioak arduratuko du, gero Udalak 20 urtez itzuli beharko duelarik inolako interesik gabe.

(bertze aldean segitzen du)



Bortziriak eta Malerreka-ko Euskaltegiak beren 5. urtemuga ospatu

Jadanik 5 urte badira Bortziriak eta Malerreka-ko euskaltegiak sortu zirenetik, beti ere euren jarduna helduei euskara irakastea izan delarik.

Dakizuen bezala, iaz arte, AEK koordinakundearen barruan antola-

turik zeuden, baina barne istiluak zirela eta, iaz kanporatuak izan ziren, egun IKAn antolatuak daudelarik.

Aurtengoan, Bortziritako Euskaltegia akordio garrantzitsu batera ailegatu da bertako Euskara Mankomunitatearekin, non, hauek egiten duten lana errekonozitzen den eta datozen hiru urtetarako diru beharren parte bat Udalek bereganatzen duten. Be-

raz, erran daiteke katakunbatik aterara eta sendoturik aurkitzen direla Euskaltegiok. Euskararen onerako izanen da, ez daukagu dudarik.

Igeriketa ikastaroa

Urtero bezala, aurtan ere autobusa antolatuko da haurrak Berara igeriketa ikastarora joan daitezen. Interesatuak baleude, Juanita andereñoari dei diezaiotela.

DONEZTEBE

Heldu den ikasturtean haurtzaindegia eskolara pasako da

TXEMA ALDABE

Orain arte 3 eta 4 urteko haurrek Herrikoetxe zaharrean bazuten ere bere lekua, lehenbiziko aldiz heldu den urtean eskolan egonen dira. Horixe onartu zuen Hezkuntza Ministeritzak Doneztebeko Udalen eskariari kaso eginez. Dena den aurtan ere, lehengo lekuan zegoen haurtzaindegirako matrikula kanpaina zabaldu zen, hiru bakarrik apuntatu zirelarik. Guttieneko haurren kopurua 25ekoa denez ezin du inolaz ere jarraitu Herrikoetxe zaharrean, beraz, ikastola-haurtzaindegia itxiko da.

Mallerrekako Euskaltegian —IKA— lehenbiziko barnetegia akitu da

Maiatzaren 7an hasi zen barne-egia eta Ekainaren 29an bukatutzat eman zen. Bi hilabetez izan ditugu toki ezberdinetako ikasleak eta aipamen berezia merezi dute ipar ameriketatik etorri diren biak. Ikastaroa akitu ondoren, batzuk euskara ikasten jarraituko dute eta bertzeak lanera itzuliko dira. Ez da erran beharrik ere ingurua aunitz gustatu zaiela, hemengo ohiturak,



Orain arte 3 eta 4 urteko haurrak Herriko Etxe zaharrean egon dira

bizimodua e.a. Gustokoak ez zirenak ere aipatu behar direnez, horixe zera izan da. Donezteben, euskara hain gutti egitea nahiz eta euskaraz jakin. Nahi duzuen artio lagunak!

Pistzina eramateko pertsona bat behar da

Horixe bera erabaki zuen udalak, egindako azken plenoan. Nahi duenak aski du bere izena ematea Udalen idazkaritzan lehen bait lehen. Lanpostu hau udarako izanen litzateke, pistzina irekia irauten duen bitartean. Inork nahiko ez balu, udal-lan-egilegoa eginen litzateke honen kargu.

Goizeko 11,30etatik arratsaldeko 8ak arte izanen da pistzinen ordu-egia.

Bertzalde, pistzina sartu nahi duenak, ordaindu beharrekoa hauxe izanen da: 14 urte arte, eguneko 100 pza. eta udara osoko kuota 1.300, 14tik 18ra arte eguneko 175 eta udarako 2.600 eta azkenik 18tik goitikoak eguneko 250 pza eta udarako 3.700 pza.

(bertze aldean segitzen du)



**Azkenean, Iluron lanean
hasiko dira**

Badirudi, gehientsuenok zalan-tzan bageunden ere, Iluro enpresako moldatze lanak berehalakoan hasiko direla. Dagoeneko Iluro ingurua ixteko eta nabe zaharra mantent-

zeko baimena badu *Congelados del Norte* enpresak. Lanak hasi eta bi hilabeteko epea dute akitzeko.

Diru-Laguntzak

Udalaren azken bilkuran onartu ziren diru-laguntzak honako hauek izan ziren: Lizarran ospatuko den

Nafarroa Oinez-i 35.000 pzta., Herri Urrats-i 5.000, Araba Euskaraz-i 5.000, Erreka eskubaloitaldeari Asturias-era egindako bidaigatik 200.000 eta Arkupek elkarteari Argentinan bizi diren 50 euskaldunei bidaia ordaintzeko 200.000 pzta.

SUNBILLA**Ikastolak ostatua paratuko du kirol jaialdian eta bestetan**

PATXI PETRIRENA

Diputazioaren laguntzarik jasotzen ez duenez, bertze iturrietara jo behar izaten du ikastolak bere beharrrak hornitzeko, ostatuaren bidez ateratzen den dirua delarik horietako bat. Horrela, uztailaren 15ean Sunbillan jokatuiko den herri kirol saioan, frontoiko ostatua irekiko dute ikastolako gurasoek, eta bestetan ere bai. Besta egunetako turnoak betetzeko jendea apunta dadin, herriko etxean jarria izanen da papera.

Herriko trikitilariak 15ean

Uztailaren 15ean, Sunbillako frontoian jokatuiko den herri kirol txapelketako eliminatorian Josune



eta Ainhua trikitilariak ariko dira, eta beren ikaslek, trikitilari nahiz dantzariak, egin dituzten aurrerapenak ikus-

teko aukera izanen dugu. Segur gustagarri izanen dela. Arrazoi ugari, beraz, bertara hurbiltzeko.

ERATSUN**Komunalen afera
pil-pilean**

TXEMA ALDABE

Bertze herri gehieretan gora behera haundiak sortu baldin baditu komunal afera honek, Eratsunen oraindik gehiago, gaztairdi eta iratze-lekuak, ia % 100ean komunalak agertzen bait dira katastroan. Baina

(bertze aldear segitzen du)



prolema zera da: katastroan agertzen diren lur zatiak, hein haundi batetan bederen, eskriturretan eta erregistrotan pasatuak daudela, horren jabetza buru belarri defendatzen dutelarik. Komunal legean agertzen den *Convenio de Transacciones* delako horrekin ez datozte bat eratsundarrak eta horrela, eginahalak egiten ari dira gehiago lortu nahian. Konbenio honek adierazten duenez % horrenbertze berea izanen litzateke.

Aipatu behar da batzarre bat egin zela Diputazioko ordezkari batekin baina honen azalpenak ez ziren gustokoak izan.

Mediku kontsultorio berria

Herriko Etxearen barrenean, orain dagoen leku berean egingen da

baina egokituz. 4ren bat milioi izanzen da kostako dena. Osasun Sailak ordainduko duelarik. Beraz, komodidade gehixeagorekin egoteko aukera, berogailu eta guzi.

Erran behar da ere lehertua zegoen Herrikoetxeko pareta orain dela berriki konpondu zela, milioi bateko kostoarekin.

ETBrekin arazoak

Azkenaldi honetan bi hilabetez egon dira ETB ikusi gabe. Gainera, ez bakarrik eratsundarrak inguruko herrikoak ere. Doneztebe, Sunbilla, Elgorriaga eta Ituren ezik gainerako Malerrekako 10 herriak hiru antena dauzkate ETB hartu ahal izateko. Bata Iruñerri mendian —TVEren ondoan—, honek Saldias eta Zubie-

tako antenak bere menean dituelarik.

Iruñeako Sinkal enpresak hartu zuen bere gain ETB paratzea eta ongi ikus zezan 10 herri horietan, baina oraindik lanak ongi akitu gabe daude, errate baterako Ezkurran ez da ikusten. Bertzalde, tximistak direla eta maiz hondatzen da Iruñerriko antena eta denbora franko pasatzen da konpondu baino lehen. Enpresa horrek oraindik ez du kobratu berari dagokion erdia, herri guztietan ongi ikustean ordainduko zaiolarik. Horixe bait zen eskatutako baldintza.

Festak prestatzen hasiak

Bi hilabete pasatuxeak falta diren arren Eratsungo festak hasteko, irailaren 8an izanen dira hain zuzen ere, dagoeneko hasi dira prestakuntzetan.

ITUREN

Iturengo Bestak

IBAN ISASI

Bestak, uztailaren 13an, ortzirala, hasiko dira. Aurtengo bestek 5 egun irauren dute, beraz, aurreko urteetan baino egun bat gehiago.

Iaz bezela 3 bandera egonen dira Herriko Etxearen balkoian: Iturengo, Euskal Herrikoa eta Nafarroako.

Iturendarrok ederki aski pasatuko dugulatan gaude eta Iturengo bestetara etortzeko gonbitea egiten dizuegu, zeren ziur bikain pasatuko duzuela. Egitaraua: **Uztailak 13, ortzirala:** 3,30etan, Herriko Etxeko balkoitik atxarferua botako da; 9ak aldera trikitilari eta panderoak, txistulariak eta akordeoiolariak ibiliko dira herrian barrena; gaueko 12,30etatik goizalderaino Martin eta bere Taldearekin dantzaldia. **Uztailak 14, larunbata:** 10etan, trikitilarietako kalejira; 12etan, Biatlon "II. Ameztiako igoera"; arratsaldeko



5etatik 7etara jinkana eta txirrindulari bira; gauez, Izotz taldearekin gau-pasa. **Uztailak 15, igandea:** **Ikurriñaren eguna** 10etan trikitilarietako kalejira; 11etan, joaldunak; 12etan Herri Kirolak (aizkora apostua, txingak, harpanak e.a.); 6etan, Iturengo Haur Dantzarien ekitaldia eta ondoren Leitzakoena; 8etan, bertsolariak eta arratsalde eta gauez, musika Aritza taldearekin. **Uztailak**

16, asteleha: 10etan trikitilariak; 12etan, Mus txapelketa herrikoia; arratsaldeko 5,30etan pilota partiduak; 7ak aldera Haur Jokoak eta arratsalde eta gauez, Martin eta bere Taldearekin dantzaldia. **Uztailak 17, asteartea:** 10etan trikitilariak; 12etan herri kirolak; 2etan bertsolariak eta ondoren herri bazkaria eta

(bertze aldean segitzen du)



arratsalde-gauetz Egan taldearekin dantzaldia. Honekin, datorren urterarte, bukaera emane zaie Iturengo bestei.

Ikastaro berriak

Orain arte hiru antolatu ditu Udalak INEM eta EPArekin batera. INEMek antolatu dituen ikastaroe-kin hasita, erran behar dugu, jantzi- gintza industrialarena antolatu due-

la eta EPAk antolaturikoak berriz, artesaugintza eta negutegi edo inber- naderoena direla.

Ikastaro hauetara apuntatu nahi duenak Iturengo Herriko Etxearen 594302 telefonora deitzea bertzerik ez du, astelehen, asteazken eta or- tziraletan 11.30etatik 2etara eta epea uztailaren 15a artekoa da.

Honi jarraituz aipatu behar dugu,

Udalak antolatu duen solfeo ikasta- roaren emaitzak bikainak izan dire- la; Garbiñe Leizak 6 ikasle zituen solfeo-ko lehen mailan eta hauetatik 5ek gainditu zuten. Gainera, badau- de ere gaztetxoagoak direnak bainan hauek, datorren urterako prestatzen ari dira; ea datorren urtekoek, auter- goen suerte berbera daukaten.

GOIZUETA

1990erako Udal aurrekontua

107 milioitakoa izanen da

P. A.

Gastuak: Denetara 107.000.000 dira. Hona hemen xehetasun batzu: Soldatak eta aseguroak, 15.000.000.- Eskoletakoa, 4.142.000.- Herriko festak, 2.500.000.- Zabor Bilketa, 1.700.000.- Zorraren amortizazioa eta korrituak, 12.800.000.- Goikoit- turriko iturri berriak hartzea, 7.549.959.- Baserri eta bordatara argia eramatea, 43.180.467. Kaleta- ko zola berritzea, 21.259.241.-

Sarrerak: Kontribuzioa (etxe, lur eta haziendak), 4.189.980.- Auto zirkulazio zerga edo inpuetoa, 2.137.709.- Zabor bilketagatik, 455.244.- Ur hornidura, 281.413. Baso enkante edo subastatik, 14.000.000, berauetatik %30a Nafa- rroako Gobernuarentzat. Estatuko Gobernutik, 1.668.656.- Nafarroako Gobernutik, 67.127.615. Azken hauetatik, 1.256.846 eskola manten- ketarako; plantaziotarako, 439.000; 26.968.000 bordatara argi instala- kuntzatarako; 6.010.000 Goikoit- turriko obrarako eta 13.906.000 kale- tarako.- Argi obratarako Iberduerok 14.154.000 emango ditu.



Urumeako arrantza

Arrantzarako egokia dela Uru- mea ibaia edozeinek dakien gauza da, Goizuetako parteari dagokionez behintzat; ikusi besterik ez, zenbat arrantzale sartzen den Gipuzkoa aldetik. Ez da, ordea, ibaia bakarrik, hogeitabi adar dituen ibaia baita Urumea. Hortik datorkio Urumeari arrain aberastasuna, eta horixe da, hain zuzen, herriko hirurogeitama- bost lizentziadun arrantzale eta hain-

bat kanpokoak erakartzen duena. Ibaia eta errekek aski ez errespetat- ztea da arrantzaleak kezkatzen ditue- na. Izan ere, neguan hazia botagatik —larogeiren bat mila aurren, lau eta bederatzi zentimetrotakoak—, udal- dia arriskutsua suertatzen da, ur gutxitzearekin batera erreka honda- tzailerik ere bertaratzen baita. Iaz erretako erreka adar batzuk ikus ditzakegu, orain amuarrainik gabe.

Felones kontseilariaren ikustaldia

Itxuraz programatuta dauzkan ibilaldietan, Goizuetara hurbiltzea tokatu zitzaion orain berriro Felones Hezkuntza Kontseilariari. Eskolako pilota plazaren estalia zeinen gaizki zegoen, ingelesa eta informatika eskolan irakasteko maisu pare baten prestatu beharra, Kultura etxetarako Zentroa Udalak moldatu nahi zuela; hori adierazi zioten Eskolan nahiz Herrikoetxean. Entzun, ongi iduritu bainan promesa gutxi samar eginda itzuli zen, dirudienez. Hori bai, ikas- toleko umeak (hiru urtetako 10 ume) eskolan sartu behar zutela esatea ez zitzaion ahaztu, aurtendik hasita dirulaguntza ukatuko zaiela eta.

Lesakako bestak

Egitaraua



Bezperan, haur ttikien danborrak girotuko ditu karrikak

Uztailak 6, Ortzirala

Eguerdiko 12etan: Beste hasiera emanen dien altxaferua botako da Herriko Etxeko balkoitik. Berehala, txistulari, soinu-lari, trikitilari eta haur ttikien danborradek girotuko dizkigute herriko karrikak euren soinu alaiekin.

Arratsaldeko 6etatik 8ak arte: Irain Eskolako dantzarien emanaldia pilotalekuan.

Arratsaldeko 8etan: B Peñen danborrada nagus-

sia, erraldoi eta buruhaundiekin karrikaz karrika.

Gaueko 12etan: Dantzaldia "Izadi" rekin. "Los Incansables" txaranga karriketan.

Uztailak 7, Larunbata
Fermin Donearen eguna

Goizeko 8,30etan: Ezpatadantzarien meza ixila.

9,30etan: Goiz-argi soinua.

11etan: Meza Nagusia Udaltzatzeekin. Ondotik,



CAJA LABORAL (Ψ) EUSKADIKO KUTXA



Elkartasunezko jai-giroan!

Alaitasuna, poza, jolasa eta ilusioak gainezka dauzkagun une honetan, Herriarengandik hurbil egon nahi dugu. Herriaren zati bat sentitzen garelako. Horregatik, festa-giroan elkarturik, egun alaiak gozateko aukera, guztiona izan dadila.

**Euskadiko
Kutxa**



herriz herri, bestaz besta

"Zubigainekoa" dantza eta ikurrin-agurra.

Arratsaldeko 6etan: Bezperak. Ondoren, Mutil-Dantza, San Fermin dantzaren sarrera, Esku dantza, Aurresku eta jotak Plaza Zaharrean.

Arratsaldeko 8 eta gauetz: Dantza-dia "Basakabi" rekin. "Los Incansables".

Uztailak 8, Igandea:

Peñen eguna

Goizeko 10etan: Peñen danborrada.

12etan: Betizuak Plaza Zaharrean.

Arratsaldeko 5,30etan: Herri Kirolak: Iñaki Perurena (250k.), Gabriel Saralegi, Arpanlariak: J. Leiza



Tantirumairu doinuari dagokion ikurrin agurra

eta F. Leiza (Lesakarrak) Errandonea anaien (Aranaztarrak) aurka.

Arratsaldeko 8 eta gauetz: Dantza-

dia "Izadi" rekin eta "Los Incansables".



MALDAERREKA S.A.

EHORZKETA ZERBITZUAK

Bittiria kalea - Tfnoa: 637404- LESAKA

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA



**CAJA RURAL
DE NAVARRA**

Deñe
LENTZERIA - MERTZERIA
Beheko Plaza 8, LESAKA

GAIA

OSASUN-DENDA
BELARRAK-DIETETIKA
EDERGAI NATURALAK

Hemen zuk behar zenuena
* Hurbil eta egoki *

- ✓ Mediku naturistarekin kontsulta
- ✓ Mehetzeko dietak eta laguntzak
- ✓ Erremedioak eritasun guztientzat
- ✓ Diabetikoentzat goxoki azukregabeak

Zatoz konfiantza osoarekin
Arretxea, 32 Tfnoa: 637466 LESAKA

IZARRA
Okindegia

Plaza Zaharra 11
Tfnoa: 63 78 55
LESAKA

Lesakako bestak



Igandean, Peñen eguna izanen da

Uztailak 9, Astelehena

Haurren eguna

Goizeko 9,30etan: Haurren dan-

borrada Lesakako kordiolariekin.

10,30etatik 12ak arte: Tantiur-mairu ikastolako dantza saioa.

12,30etan: Betizuak Plazan.

Goizez eta arratsalde: Moto-Rop futbol zelaian.

Arratsaldeko 7etan: Pilota partiduak "Arkupe" k antolatuak.

Arratsalde eta gauez: Dantzaldia "Gau Bela" rekin eta "Los Incansables".

Uztailak 10, Asteartea

Ezkonduen eguna

Goizeko 10etatik 12,30ak arte: Judo eskolako erakustaldia.

12,30etan: Betizuak Plazan.

Arratsaldeko 3,30etan: "XLIV. Txakain Txirrindula Saria" 115km.

Arratsalde eta gauez: Dantzaldia "Gau Bela" rekin eta "Los Incansables".



FAGOAGA

Harategia

Albistur 19, Tfnoa: 63 78 69 - LESAKA

"ZZ" Zapatadenda

Besta onak opa dizkizue

Bittiria, 63 72 23 - LESAKA

MEKANOTERAPIA ZENTROA LUR APAL

BIZKARRA - ARTRITISA - ZAINAK - STRESA

Plaza Zaharra 7, Tfnoa: 63 70 11 LESAKA



★ KIXKUR ★

ILEAPAINDEGIA

Bittiria Tfnoa.: 637492 - LESAKA

KASINO JATETXEA


Besta onak opa dizkizue

Tfnoak.: 63 72 87 - 63 71 52

Plaza Zaharra

LESAKA

herriz herri, bestaz besta



Igandea, astelehena eta asteartean betizuak ibiliko dira Plaza Zaharrea



Erraldoiak



ORUBE

Elektrogailuak

Besta onak opa dizkizue
Bittiria karrika - LESAKA

ARRATZUBI ARDOTEGIA

Tfnoa.: 63 72 79
Bittiria karrika
LESAKA

IRAZOKI

Janari denda

Arretxea 8, Tfnoa: 63 70 85
LESAKA

ELKAR

Auto Eskola


ELIZONDO 58 00 77
LESAKA 63 78 70

FONDA

XATURETXEA

TFNOA.: 63 70 27

LESAKA



GOIZUETA
KIROLAK

KIROLAK
MENDIRAKO ARTIKULUAK

BEHEKO PLAZA 10 LESAKA

Lesakako bestak

ORDOKI ALTZARIAK

Baserriko mobleak

Tfnoa: 63 70 34

LESAKA

ESTHER

ATEAK

Erakusketa eta salmenta -Zarrailak - Kuadroen markoak

Tfnoa: 63 74 23

Zarandia, 5 - LESAKA

IRUBIDE

OSTATUA
ERRETEGIA

Tfnoa: 63 71 27
LESAKA

SASKI ZAR

OSTATUA

LESAKA



Lore eta landareak

Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

ATXASPI

OSTATUA

LESAKA

LESAKAKO EUSKALTEGIA

Tfnoa.: 63 77 96

Bestetan ere euskaraz!

TXIRULA LORADENDA

Laister zabalik

Bittiria karrika - Tfnoa.: 63 74 94

LESAKA

BERROTARAN

Janari denda

Bestak ongi pasa!

Bittiria karrika, Tfnoa: 63 79 38 - LESAKA



BEREAU

Jatetxea

Espezialitatea piper beteetan

Lesakako zubia, 637382

LESAKA

EROSKI

Diferentzia Markatzen Du.



BATZOKI

JATETXEA

OSTATUA

Tfnoa.: 63 79 31

Lesaka

Lesakako bestak



Lesakako San Ferminak

Telletxea Argazkia

Guretzat hain bereziak diren egun hauetan,
bere herrikideen alaitasunarekin bat egiten du

Jai Zoriontsuak!

denokin eta denontzat



NAFARROAKO AURREZKI KUTXA

Parte hartze haundia San Juan bezperako bestan

Afarian 550 lagun elkartu ziren

MIRENTXU

Aurrera Kirol Elkarteak antolatutarik, arratseko 9,30ak aldera eman zitzaion hasiera urtero ospatzen den besta honi, herri afari batekin. Afari hau 400 lagunentzat prestatua baidin bazen ere azkenean 550en bat lagunek parte hartu zuten, bestaren arrakasta adieraziz.

Gaueko 12etan jaialdia hasi zen, San Juan bezperako suak biztu txalapartaren soinua lagun zutelarik. 12,30 Leitzako dantzari ttikiak beraien saioa eskeini zuten.

Ordu batetan kirolak hartu zuen erreleboa sokatirarekin hasita, taldeak hauexek izan zirelarik: Amaiur, Sunbilla, Ultzama, eta Leitza. Lehenengo kanporaketan Amaiur eta Sunbilla aritu ziren, Amaiurrek irabaziz. Bigarren eliminatorian Ultzama Leitza aurka,



Ultzamak irabaziz. Amaiur eta Ultzaman arteko finalean lehenengoak irabazi zuen.

Ondoren aizkolariak izan genituen beren saioa eskeini zutenak, parte hartzaileak: Etxebeste, Aierbe,

Mendizabal, Etxeberria, Nartxi Saralegi eta Esteban Saralegi eta Gabriel Saralegi. Hauen lana, lehendabizi etzandako 60 ontzako egur bana, irabazlea Nartxi Saralegi suertatu zelarik, 2. Etxebeste, 3. Etxeberria, 4. Mendizabal, 5. Esteban Saralegi eta 6. Aierbe. Bigarren zutikako 54 ontzako egur bana, hemen ere irabazlea Nartxi Saralegi izan genuen, 2. Etxebeste, 3. Gabriel Saralegi, 4. Mendizabal, 5. Esteban Saralegi, eta 6. Aierbe.

Azkenik, Mikel Saralegiren exhibioa 200kiloko errektangularrarekin 9 jasoaldi 2' 02" segundutan.

2,30etatik aurrera Jarauta 69 txaranga eta trikitrilariak ibili ziren besta giro ederrean 6,30ak arte.

Aurrera Kirol Elkarteak besta honen balorazioa egiterakoan "oso ona" izan dela adierazi digu, jendearen harrerangatik bereziki.

NOVA-COMPUTER

Errekurtso Informatikoen Zentrua

Rio Alzania 23, Tfnoa: 247023 - 31006 IRUÑEA

IKASTAROAK:

- ✓ MS-DOS Sistema Operatiboa
- ✓ Testu Prozesatzea
- ✓ Kalkulu orria
- ✓ Grafikoak

Martxan diren kurtsoak:

- ✓ ELIZONDO, IRURITA, ORONOTZ, LEITZA, BERA

Hemendik gutxira:

- ✓ BERA, LESAKA, DONEZTEBE



SANTAMARIA

Jatetxea

Especialitatea euskal sukaldaritzan

Eguneroko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 59 40 43 - DONEZTEBE

IPINGI

**ARROPAK, TELAK, OPARIAK ETA
ESKULANGINTZARAKO MATERIALEA**

Santiago 88, Tfnoa: 580939 ELIZONDO

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

Michel Guereñdiain

SARA - LAPURDI

Ikastolako gurasoak kezkaturik, Udalak sortarazi duen arazo larriagatik

Bazterkeria ez bada, egiazko arrazoirik ez izatea salatzen diote gurasoek

M.G.

Ikastolaren tramitazioa burutze-ko, ministeritzak, beharrezkoak diren agiriak lehen bait lehen aurkezte eskatu zion Baztango Udalari. Horretarako, zuzenbidean bi ikastetxeak kontutan hartuko zituen agiria aurkeztu behar izanen luke baina, bakarrik El Pilar-en dagoenari buruzko paperak agertu ditu, eskolaurreko lau mailak (2, 3, 4 eta 5 urteko haurrak) biltzen dituen ikastetxearena, Kuarteleko zelaian dagoena alegia, agertu gabe utziaz.

Gaur egun, Baztango ikastolak 250 ikasle dauzka eta erran bezala Udalaren babesean dagoen eskola publikoa da. Azken urteotan, gero eta haur gehiago matrikulatu da ikastolan eta gaur duen sendotasuna kontutan hartuz eta oraindik bero daudenean lokalak zirela eta izandako borrorak, "probokazio" bat bezala ikusten dute hainbat baztandarrek Udalaren jokaera.

Udalak dioenez, "Musika Eskola"rentzat erabili nahi omen du ikastolak Kuarteleko zelaian duen ikastetxea nahiz eta hastekoz, Musika Eskolarentzat nahiko lekurik egon Arizkunengan.

Baztango Elkartasuna eta Herri Batasunako kontzejalek bi mozio aurkeztu zuten Udalbatzaren azkeneko biltzarrean. Bi mozioak ez zuten aintzineria egiterik izan baina Union Baztanesakoek, bildutako guraso eta lagunen aintzinean emandako arrazoï eta hitzek ez dute segidarik izan. Ikastolak, hiru aldean artean (ikastola, Udala eta ministe-

ritza) egitea eskatzen zuen bilera ez da inoiz egin.

Gaur egun beraz, bi gauza gerta daitezke: ministeritzak, ikusirik udalak ez dituela bi ikastetxeak kontutan hartzen, gibelera egitea eta bi ikastetxeen paperak eskatzea udalari edo... udalak eskolaurreko ikastetxearen paperak agertzen ez dituen bitartean, El Pilar-ekoa bakarrik onartzea.

Baztandarren Biltzarra 90 prestatzen ari

MAÑONE

Uztailaren 22an egingen den bestarako, antolatzaileek, zenbait berrikuntza prestatu dituzte; Herri Kiroalak eta desfilea indartu nahi dute koloridoa emanez (zako, dantzari...)

Bestaren aurrekontuari aintzin egiteko, antolatzaileek jarriko dituzten bi ostategi aparte, Baztandarren Biltzarren kide izateko txartelak izanen dira salgai; prezioa, 500 pzta. helduentzat eta 200 pzta. gazteen-tzat... eta baita ere, atorrak, txapak eta txanoak. Guzi hauek salgai dau-de Baztango zenbait ostatueta eta herrietako bestetan.

Alkateak "Forte Rock" a debekatu

Elizondoko Fortenea ostatuan ortziral gauetan eta hamabortzetik behin egiten ziren rock kontzertuak, arrakasta gogorra zuten gazteen artean. Bertzeak bertze, Kanka, Desakato, Beltzez, Zenzerock, Malafama... izan dira parte hartu izan duten taldeak.



Ekainaren 17an, "Ttapi Ttapa Amnistiaren aldeko martxa" izeneko ibilaldia, goizean Dantxari-neatik sartu eta Iruñerako bidean, Arizkun, Elizondo, Arraiotz, Oronotz-Mugaire eta Almandotzetik pasatu ziren. Elizondon, kalejira ondotik bazkaria egin zen Merkaturko zelaian. Denetara 200en bat lagunek hartu zuten parte herriz herri egin ziren ongi-etorri eta kalejiretan. Baztango Amnistiaren aldeko Baztazordekoek "positiboki" baloratu zuten jendearen parte hartzea eta preso politikoei elkartasuna.

Santurtziko Euskaltegiaren ibilaldiaz bi solas

OLAIN ELKARTEA

Ekainaren 22an Santurtziko Euskaltegia gure artean ginuen Sarari agur ohoretsu bat egin nahiz. Beraz Olain Elkartek eta bertako gaztetxeak beren gain hartzen zuten berrogoi bat gazte hauek Saran gaindi ibiltzea gure bazterren ezagutarazteko.

Goizean Sararat heltzean ongi etorria egin zitzaion eta ateraldiaren hasteko, Michel Idiartek, herriko erretorak, Sarako eliza erakutsi zien. Ondotik Pilotaren inguruan dagoen erakusketa begiratu zuten Herriko Etxean eta joan ziren Lezeen ikustera.

Anartean, haien zat arrotzak ziren auzo eta baserri asko ikusi ahal izan dituzte bidean zehar.

Biak irian plazarat itzultzen ziren eta gazteen gelan aperitifa edan ondoren, bazkaldu zuten, denbora berean Sarako gazte batzuren ezagutza egiten zutela. Sarako egonaldien burutzeko, Gaztetxerat itzuli bat egin zuten. Agian usu gertatuko



Aranburua jauregia

dira gisa hontako gazte elgarretarazteak.

Sarako itzuliaren azken oihartzunak

Joan den ekainaren 17an iragan zen Sarako Itzulia, mendigoizaleen ibilaldia. Goizean abiatu ziren laurhun bat partaide eta berrehun eta berrogeitamarren bat lagunek bukatu zuten itzulia. Eguraldi txarragatik aintzek ez zuten burutu ibilaldia zeren bidexkak eta patarrak lerrakor eta lohitsu gertatzen ziren. Egun

hortan, bertze arrangura bat sortu zen Gomendiko eskualdean, Lizuniagako auzoan, mendizaleek jasan behar izan baitzuten Moto Cross laisterketa bat, oinez zabiltzanak trabatzen eta geldiarazten zituztela. Ez da uste izan behar zerbañ badugula Moto Crosslarien aurka bainan hurrengo urterako behar litaie ekainaren hirugarren igandea mendizaleendako begiratu edo elgar aditu ez daitezen bi lehiaketak une beretik pasatu. Hitz ordua hartua dago beraz heldu den urterako...

ZUGARRAMURDI

Akelarre gau pasa

3.000 lagun pasa sartu ziren lezeetan

KORO IRAZOKI

Joan den ekainaren 23ko gauean Akelarre-gaupasa antolatu ginuen. Azken urte hauetan bezala, aldi huntan ere arrakasta haundia izan

du, urtetik urtera jende gehiago hurbiltzen baita; erraten ahal da aurtan 3.000 lagun pasa sartu direla lezeetatik. Hunek, alde batetik poxten gaitu erakusten duelakoz jendeari tokia, giroa eta besta hau gustatzen

zaiola, baina beste aldetik hainbertze jende izateak ekartzen ditu bere arazoak ere: kotxea uzteko tokia eskas (ba tzuk egin behar izan zituzten 2km. oinez), gero halako tenoretik aintzina jende parrastada etortzen dela eta sekulako multzuak sa-

(bertze aldean segitzen du)





rrera ateratzeko; eta azkenean, behin barnean, jendea egarrituta eta lezean diren 3 ostatuak eskas denak zerbi-

tzatzeko.

Batez ere, espero dugu guzti horien gainetik jendeak ongi pasatu

izanen duela gau hau: lehenik "Minxoriak" eta "Bizkar hezurra"k jarri zuten martxarekin, gero egin zen "Akelarre" antzerkiarekin (nahiz eta aldi huntan ez batere ongi ateratu musika eta bertze problematxoengatik) eta azkenean Zarpantzarrek airean utzi zuten dardararekin.

Bertze gauza bat ere eskatu nahi genuke hemendik gau hortan lezean zirenei:

Antzerkia egin ondotik akerraren buru-hezurra hantxe berean su ondoan gelditu zen, eta haren eske joan ginelarik desagertua zen; beraz, norbaitek zerbaite berri ematen ahal baldin badu honen gain, eskertuko zaio 59 90 83 telefonorat deitzen badu

ZUBIETA


JUAINAS

Hau dun/duk herria hau! Deus handirik ez bada gertatzen ere, beti bada berriketa motiboa. Hamabost egun hauetan, esate baterako, zera egin da.

Inmaren despedida, hagitx polita gainera! Guraso batzu handik, besteak hemendik, elkartu ziren, hondarrerako, eta kristoren ospakizuna bota omen zuten —omen hori kenduta, bertan bait nengoen, bota genuen galanta— Inma emozionatu zen. Guztiz normala?. Bederatzi urtez eskola eman eta alde egin behar duenean maite dugula esaten diogu! Egonen gara berriro!.

Herrian giro nagusia, dena den, kirolaria dugu, bapateko zerako zera hura...

ETB ikusiko bagenu! Uy! uy! uy, ama! Ez bait da lortzen! aste bat, asko botata, konpondua egiten baldin badu, hiru hilabete izorratua... Bilerak eta telefonoak ez dute deus-



Bi "arpajole" eta zazpi maisu...

tako balio... teknikoak ez dute hitza betetzen eta, laguntzeko, noiz behin-kako graziosoren batek bere insolidaritatea erakutsi behar du. Kuriose-na, nere ustez, teknikoak kobratze-ko direla da, behar bezala jarri arte ez zitzaizela ordainduko esan bait genien. Hala eta guztiz ere...!

San Juanak eta kirolak. Gauzak, gehienetan, bata bestearen

ondoan heldu dira, nola den jakin gabe. Herriko kirolarena atera zenean —Saralegiarena...— Zubitarren egokitasuna ikusten zen... mugitzea zen zailena... abiatu ziren Ion eta Jon Mikel... zas! ekipoa sortu da... eta gerra denontzat!.

(bertze aldean segitzen du)



Urrutirago joan gabe fiestetako emakume ezkonduak soltereei desafioa bota diete, lekukoa edo testigoa ni naizela... Fiestetako gau batentzat nahi dute, gauak laguntzen bait du izugarri... Lotsa izkutatzen, bederen... Aterako da? Ez dute a-

tzera eginen? Fida zaitez! segutu beharko genuke lehen bait lehen... Solterak atrebituko dira?

Mutilak bai, jo ta ke hor ari dira, maisu inguraturik arpanan ikasten... zubitarren afana! Sanituak gainera! San Juaneko gauean, Saldisa inbadi-

tu ez zutenek, hor aritu bait ginen, saltoka.

San Juan Zaharra, fuera

onak barrenera

gaiztoak kanpora

SIDA fuera!... ala sarna fuera zen?

EZKONTZAK

Javier Bertiz Elizondo eta **Mirian Etxarte Txoperena**, Lesakakoa eta Igantzikoa, ekainaren 30ean.

Julio Salinas eta **Fermina Indakoetxea**, Lesakakoa eta Arantzakoa, uztailaren 7an.

Patxi Eskudero eta **M. Angeles Irureta Santesteban**, Iruritakoa eta Elgorriagakoa, ekainaren 30ean.

Juan Manuel Ollokiegi Puy eta **M. Concepcion Olaetxea Altzugarai**, Pasaiaakoa eta Lesakakoa, ekainaren 9an.

Justo Joakin Agirretxe Mazi-zior eta **M. Isabel Altzugarai Etxegarai**, Lesakakoak, ekainaren 16an.

Miguel Joaquin Sagastibeltza Villanueta eta **Nerea Egües Carrera**, Leitzakoa eta Elduaiengoak, maiatzaren 26an.

JAIO TZAK

Jaime Garcia Errandonea, Berakoa, ekainaren 1ean.

Daniel Moreno Muñoz, Berakoa, ekainaren 3an.

Ane Sainz Matxikote, Igantzikoa, ekainaren 18an.

Xabier Madariaga Iribarren, Urrotzkoa, ekainaren 14ean.

Endika Urrutia Azpiroz, Saldiaskoa, ekainaren 2an.

Íñigo Zubeldia Telletxea, Saldiskoa, ekainaren 10ean.

Jon Azpiroz Astiz, Leitzakoa, ekainaren 1ean.

Imanol Urkiola Olano, Leitzakoa, maiatzaren 8an.

HERIOTZAK

Juan Felix Galarregi Ibarra, Beran, ekainaren 10ean, 41 urte.

Karmelo del Puerto Egaina, Beran, ekainaren 23an, 41 urte.

Manuel Uranga Goienetxe, Zugarramurdin, ekainaren 19an, 72 urte.

Jose Miguel Canfranca Zabaleta, Leitzan, ekainaren 6an, 71 urte.

“San Martin”, Oronotz-Mugaireko Nekazal Lanbide Eskola



Gure herrietako bizimodua nola antolatu ikasten den eskola

Duela 16 urte, 1974ean eman zituen lehenengo urratsak 45 ikasle bilduz; hauetatik 35 neskak ziren. Hasieratik, Eskola, Guraso Elkar-teen izenean dago. Ministeri-tzarekin eta Nafarroako Gobernuarekin ere komenio bat sinatua dute.

Azken urte hauetan Iruñetik ikasle bakar batzuk etorri badira ere, kopururik haundiena herri ttikieta-koa da, Zugarramurditik Altsasurainoko eremuko neska-mutil gazteak. Lau espezialitate ematen dira bertan, Nekazaritza, Mekanika, Etxeko Ekonomia eta Forestala. Bi urtekoak dira ikasketa hauek eta “Laguntzaile Tekniko”aren titulua lortzen da azterketa guziak gaindituz gero. Ikasketak segitu nahi

baldin badira, Nafarroako Gobernuak Atarrabian duen Nekazari Eskolan egin daitezke bertze hiru ikasturte. Lanbide Heziketaren 2. mailako (LH2ko) bertze espezialitateetara ere pasa daiteke edota BBBren 2. kurtsora.

“Alternantzia” edo “Txandaketa” deitzen zaion moduan ematen dira klaseak; hau da, aste bat eskolan, bai teoria bai praktikak egiten eta bertzea etxean edo... Nekazaritzakoak eta Forestalekoak negutegi ezberdinetan, Mekanikakoak inguruko tallerretan eta Etxeko Ekonomiakoak, haurtzaindegietan, eskoleta-ko jantokietan e.a. praktikan egiten. Eskolako gastuak ordaintzeko, ikasleak ikasturte bakoitzeko 50.000 pzt. pagatzen du, janaria eta ohea bertan sartzen direlarik. Gainontzekoa Ministeritzaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntzekin hornitzen da.

Hasierako zailtasunak

Eskola honen sorrerako helburu nagusienetariko bat, herri bakoitzean haurrek egiten zituzten oinarritzko ikasketetan ez gelditzea izan zen, "duela 16 urte, gu hasi ginenean, herrietatik oso jende gutti joaten zen goi mailako ikasketak egitera, kontzentrazioerik ez zegoen eta urte batez ibili ginen herri herri, gurasoei hitzegiten eta ikusten ia merezi zuen horrelako eskola bat jartzea, orduan gure lema hori zen: zerbait egin ikasketak akituta" erraten digu Ramon Apezetxeak, Eskola sortu zenetik bertako zuzendaria denak.

Gutti gora behera 800 ikasle pasatu omen dira eskola honetatik eta gehienak bilatu omen dute lanpostua; zera erraten digu Ramonek: "Forestala ikasten zutenak orain arte ez zuten hain erraza, baina badirudi bai Nafarroako Gobernuak bai Udalek ere hasi direla mendia zaintzeko langileak kontratatzerakoan, oposizioan, Forestaleko titulua esijitzen. Nekazaritza ikasi dutenetik herri, aunitz dira baserritan abeltzantzara edo nekazaritzara jo dutenak".

Praktikan oinarritutako ikasketak

Era honetara jokatzeko da ematen diren espezialitate guzietan, "gure sistema da ikasleek ikusiz eta eginez ikastea, horrela, hemen taller mekanikoa dugu eta negutegiak ere. Gainera Nekazaritza egiten dutenek soldadura eta mekanika ikasten dute eta alderantziz, Etxeko Ekonomia eta Mekanika egiten dutenek herri, Nekazaritzako oinarritzko ikasketak egiten dituzte, hemengo ikasle gehienak, herrian bizi baitira eta beharrezkoa bait dute beren bizimodurako hori ikastea. Hortaz konturatu ginen herrietan, baserritarren ar-



Ramon Apezetxea, eskolaren zuzendaria



Ikasleek ikasketak eta praktika tartekatzen dute

tean, BBB edo bertze zerbait ikasten ari zirenen artean ez zegoela harremanik eta horregatik jarri genituen ikasketa mota hauek", dio Ramon Apezetxeak.

Teknologia berriak eta gainontzeko aldaketak ere kontutan hartzen dituzte, batez ere Europako Elkarte Ekonomikoan sartzeko kontuak hasi zirenetik, "hemen ikastaro aunitz an-

tolatu ditugu, bai bertako ikasleentzat bai inguru hauetako nekazari-entzat, kanpoko jendea ekarri, 350 pertsona bildu izan ditugu zenbait bileretan, informazioa emateko, eztabaidatzeko e.a."

Eskolaren bertze eginkizun batzuk

Irakasketara bakarrik ez da mugatu San Martin Eskolaren eginkizuna, "hasieratik, hemengo nekazari-entzat batez ere ikasle gurasoei laguntza eskeini diegu. Eskualde hau berez sekulan mugitu ez dena izan da eta eskolaren inguruan hasi zen zerbait mugitzen, 1977-78 urtean traktoreak karriketara atera zirenean, hemen egiten ziren bilera guziak eta 180 baserritar biltzera iritsi ziren. Iruñeako diputazioarekin bilerak egin ziren. Gerotik ere zerbait antolatu edo prestatu behar bazen, denak honera etortzen ziren. Orain bertan ikastaro ezberdinak eman dira, gazta nola egin, ITG ematen ari den kontabilitate ikastaroa e.a."

Ikastetxearen etorkizuna

Gai honi buruz zenbait zalantza adierazten dizkigu Ramon Apezetxeak, "baserritarrek eta herri hauetako gurasoek, orokorrean, ez daude batere konforme beren lan edo bizimodutaz, orduan errezena zera erratea da: nire seme alabek karrera bat ikas dezatela eta BBB egitera bidaltzen dituzte baina hor ere porrot egiten dute. Begira, eskualde honetan 300-400 ikasle dira BBBn, eta zenbat maisu, mediku edo injenieru aurkitzen duzu gure herrietan? Oso gutxi".


PELLO ASTIZ

Malerrekako Euskara Zerbitzuaren maldak

Ines Gerekarekin solasean

Euskara maite, atzo goizean ikusi zintudan,... zioen gure Benitok. Ahula ikusiko zuen, seguraski, ahuleria gaintitzea ez baita batere erraza. Ari dira, ari, nola edo hala, bizkortu nahiean... Euskara Zerbitzua antolatzen... eta... gure Malerreka maldatsu honetan ere antzeko zerbaitean gabiltza. Mendi malkortsuek mala ugariko uholdeak sortzen dituzte —malak, uholdeek eramaten dituzten lurak omen dira—, gainbera noski, euskararekin gertatzen dena prezeski... Behetik gora eramatea da neketsua!

Iaz jo ta fuego lanean hasi zen
Ines
Gerekarengana
etorri gara, gaur, ekainaren batean.



Galdetu diogunean... irripar eternala duen emakume hau bapatean seriotu zaiagu...

Beno —dio— gauza asko berba gutxitan esateko. Ez doztazu xamur ipintzen! Bertan jaioa ez dela argitu beharrik ba al dago? Oñatiarra dugu, zubitar-oñatiarra hobe

erranda. Txantxiku herritik ijitoen herrira etorri bait da, Goizuetan, apoen herrian geratu gabe (txantxiku apoa omen da hango berbetan).

Nola daude gauzak?

Aurtengo hasiera, egia erranda —dio hemengo batuaz—, nahiko “kilin-kolon”ekoa izan da, baina azkenean... otsailaren leian, heldu den abendurainoko kontratua sinatu nuen.

Zeintzuk ziren, bada, trabak?

Udalek ez dute behar bezalako ardurarik hartzen —erabakitzen du zorrozki—. **Ulertzen dut bertze mila gauza dituztela... baina... gure** mankomunitate honetan zerbitzu hau ipintzeko orduan denak prest bazeuden nolabait jarraipen bat eman beharko zaio, ezta? edo gutxienez helburu

batzu markatu.

Nola ulertzen ahal da, ulertzerik baldin bada, udalen erantzun eskasa?

Sarritan galdetzen diot neure buruari ez ote diren konturatzen erdarraren indarrarekin euskara baztertuz doala. Herrietako haurrak, *telexiñua* edo bertze arrazoiengatik, gero eta gehiago aritzen dira erdaraz... edota euskalduna

udaletxera, osasun zent-
trura, INEMeko bulego-
ra doanean beti erdaraz
egitera beharturik dago.

Kontzientzia falta dago,
orduan, Lortu beharko da!

Gustatuko litzaidake,
bai, lortzea, baina zirika-
tzeko akuilua maneiatzeari
ez da batzuetan errexa
izaten, ostikoak edonon-
dik har daitezke eta!

Lana batere erosoia ez
duzuela dirudi, hortaz.

Ez, ez da lan erraza
eta batzuetan nazkaturik
bukutzen dut... horren-
beste paper eta burokra-
zia, horrenbeste ardura-
gabekeria!

Hamairu udalerriri dira
baina nola bildu? nola
koordinatu?... Ez dago
inolako Euskara Batzor-
derik eta hasiera batetik,
egin beharko genukeen le-
hendabiziko gauza bat
hauze zela erraten nien...
bilerak... honezkero pila-
txo bat egin izan dugu,
eskutitzak bertze mor-
doxka bat... Baina bilera
hoietan gehien bildu izan
garenean 7 bildu gara...

Hain beltza izanik, zer
egiten duzu irriparra ez gal-
tzeke?

Oraingo hontan ajajakaz
inguratzen du erantzuna...
Batek erraten duen beza-
la Malerreka zoragarri
hau Farwest-eko erreka
dugu eta mankomunita-
teko euskararen "mari-
florinda" bat naiz.


Eta zein asmo ditu

Mariflorindak? Etorkizu-
narik ba al dago?

Haserre itxura egin
ondoren, bere izenaren
erreibindikazioa eta guzti
hori... Oinarritzko lanak
eta egin beharrekoak dute
lehentasuna. Azken
hauek, zoritxarrez, nere
denbora gehiena jaten

«Udalek ez dute
behar bezalako
ardurarik hartzen
Malerrekako
Euskara
Mankomunitatea
martxan
jartzeko»

dute baina hau ez da beti-
koa izanen. Orain euska-
raren egoera aztertzen ari
naiz. Ikastetxeetakoa ia ia
bukatua dut eta ikerketa
bera Osasun Zentroan,
bulego publiko eta pribatu-
tuetan egin nahi nuke.
Bertze aldetik, Udal lan-
gilegoaren euskalduntze-
alfabetatze plangintza
prestatzen ari naiz. Lan-
gile guzien harrera ona
azpimarratzeko modu-
koa dela erran beharra
dago. Hau bukatzen du-
danean, laister, udalei
aurkeztuko diet —etor-
tzen direnei— eta ondo-
ren, Nafarroako Gober-
nuko arduradunei diru



laguntzak jaso ahal izate-
ko... Irailean "euskararen
transmisio kanpaina"ri
ekingo diegu, Sakanan,
Bortzirietan, Aezkoan,
Uhartan, Lizarran eta
Malerrekan... Urrian,
berriz, heldu den urtera-
ko plangintza prestatu
beharko DUGU, ea plan-
gintza sakon eta zehatza
egiten DUGUN—dugu eta
dugun maiuskulaz idatzi
baldin baditugu ez da ka-
pritxoia izan, Inesek gero
eta ozenkiago botatzen zi-
tuelako baizik— ordura-
ko espero dut NORBAI-
TEN (boluntariorik edo...)

laguntza izanen dudala.

Malerrekatarra, jaso al
duzu deia?

Bere asmoak laburbil-
tzeko horrela bukatu zuen
Inesek elkar-hizketa: uda
beroa izanen da, ba, aur-
tengoa; akuilua hartu eta
zirikatzen! Tarteka ige-
rialdiren bat ere egin
beharko dut eta oporrak
diak ere hartu, bertzela...

Besta, parranda edo
juergaren batetan topatuz
gero, ardo goxora gonbida-
tu, hagitz maite bait du...

JUAINAS

Kirol Batzordeak, aktibitateak antolatzeko diru-laguntza deialdia zabaldu

MATTARI

Deialdiaren oinarriak:

• **Zergatia:** Deialdi honen zergatia kirol aktibitateendako zuzentzen den diru-laguntza erregulatzea izanen litzateke.

• **Norendako:** Sektore hauei zuzenduta dago: haur, gazte, heldu, 3. adineko, ezindu fisiko eta burmuin elbarrituentzat.

• **Nolako aktibitateak antola daitezke:** Espartzimenduko kirol aktibitateak (federatuak ez direnak), kurtsoak antolatzeko eta kirol erakusketa eta ikuskizunetarako.

• **Aurrekontuan, zer da justifikatu behar dena?:** monitoreen ordainketak, materialeak, instalazioak, joan etorriak, antolaketa gastuak.

• **Nork eska ditzake diru laguntza hauek:** Baztan - Malerreka - Leitzaran eta Bortzirietako Kirol Elkar-
teak, Eskualdeko eskolek, bertze entitateek: (guraso elkarte, jubilatuek, bestetako batzorde, gazte talde eta-
bar), Eskualdean enpadronatuta dagoen edozeinek eta Nafarroako Kirol Federazioak, baldin eta bere delegatua gure eskualdean egonen balitz.

• **Epea:** Uztailaren 25ean bukatzen da.

• **Eskaerak non aurkeztu:** Zonalde bakoitzeko kirol bulegoetan (Herriko Etxeetan), kirol koordinatzaileen bitartez:

Baztan (Elizondo)	580006
Malerreka (Ituren)	594302
Leitzaran (Leitza)	510103
Bortziria (Lesaka)	637005

Nola egin: Eskaerak, Herriko Etxeetan aurkitzen diren fitxa berezietan aurkeztuko dira.

• **Diru laguntzen onarpena:** Eskaerak aurkezteko epea bukatzen denean, aktibitate bakoitzari diru laguntza bat emanen zaio —banaketa hau Udaletako ordezkariak eraba-

kitzen dute—. Laguntza hartu ahal izateko, gastuen faktura originalak aurkeztu beharko dira, horregatik, fitxak betetzerakoan aurrekontuak eta datuak egiazkoak izatea komeni da zeren eta bertzenaz, subentzioa galduko baita.

1990.ko UDAL KIROL BULTZAPENA Proiektu Fitxa-Kirol Egitarauen Ebaluaketa

ESKUALDEA: _____ FITXA ZB.: _____
 ANTOLAKETA ERAKUNDEA: _____ EGITARAU NOTA: _____
 AKTIBITATEA: _____
 ESKUALDEKO _____ ZONALA _____ LOKALA _____
 ARDURADUNA _____ TFNOA: _____
 INSTALAZIOA: _____
 MONITOREA: _____
 USTEZKO DATA: _____-k _____tik _____-k _____ra
 ERREALA: _____-k _____tik _____-k _____ra
 USTEZKO ORODUAK: _____ ERREALAK: _____
 USTEZKO PARTEHARTZAILEAK: _____ ERREALAK: _____

GASTUEN AURREKONTUA

	USTEZKOA	ERREALA
ANTOLAKETA.....	Pztw.	Pztw.
IKITZERAK.....	Pztw.	Pztw.
MONITOREAK.....	Pztw.	Pztw.
MATERIALA.....	Pztw.	Pztw.
INSTALAZIOAK.....	Pztw.	Pztw.
DENETARA-TOTALA...	Pztw.	Pztw.

GHARRAK: _____

Eskaera fitxak Herriko Etxeetan aurki daitezke

DEIALDIAK

Uztailak 15: Sunbillan goizeko 12etan Baztan-Bidasoako Herri Kirol Txapelketako lehen topaketa.

Uztailak 16: Lesakan, igeriketa ikastaroaren hasiera.

Uztailak 25: Baztan-Bidasoako kirol aktibitateendako zabaldutako diru eska-
rien muga eguna.

Horoskopoa

Cancer,... karramarroa

Cancerri buruzko mito berezirik ez dago, izan ere, konstelazio honetan babiloniarrek karramarro bat ikusten zuten eta egiptiarrek ordea, bi dordoka.


Uda hasten da

Eguzkia Cancer zeinuan sartzearekin batera hasten da uda —aurten ekainaren 21eko arratsaldeko 5ak eta 34 minututan—, urteak duen egunik luzeenean. Uda aintzineran doan neurrian, beroak ere haundituz doaz eta baita ere egunak pixkanaka pixkanaka laburtzen. Garai honi “udamuga” edo “udako solstizioa” deitzen zaio eta munduko hainbat kulturetan bestak eta ospakizunak egiten dira.

Uztak biltzeko sasoiak ere ailegatzen dira... fruituak koxkortzen eta osatzen ari dira. Lurrak amatasun haundia erakusten du. Horregatik Cancer amarekin asoziatzen da, ernaldiarekin, etxearekin, etxeko babes eta xamurtasunarekin, aberriarekin...

Cancer arketipoa

Cancer, laugarren zeinua da; negatiboa, kardinala eta ur elementukoa. Urak, emozioak eta sentimenduak adierazten ditu, maitasunik sakonena eta baita beldurrik haundienak ere. Pertsonak ongi armonizatzen badu mundu honekin bere sentsibilitatearen garapena lortuko du eta bertela bere sentimendu eta beldur irrazionalen nahaspilaren menean eroriko da. Ur zeinuak erasogarriak dira eta Cancer-ek inguru atsegin bat behar du bere burua babestua senti-



tzeko. Haurtzaroan, babes hau amarengandik lortzen du eta horregatik da hain garrantzitsua beretzat amaren figura. Beldur dio etorkizuna eta ezezagunari; nahiago du iraganeko segurtasuna: horregatik lotzen du maiztan bere burua familia eta tradizioari.

Errekako urak harri gogorraren erosioatzen duen bezalaxe, Cancer euskorra eta setotsua da; ez du barikatzen bere helburua lortu arte, baita

arlo afektiboan ere.

Karramarroak haragia gordetze-ko oskol gogor bat dauka, modu berean cancerarrek, beraien sentsibilitatea eta sentimenduak gordetze-ko oskola ipintzen dute eta arriskua sumatzen dutenean gibelka aldegiten dute. Zeinu honetako jendeek hobeki jokutzen dute beren burua seguru somatzen dutenean.

FERMIN ALTZUGUREN

ETXEBIZITZAK

-**Etxe edo baserria** erosiko nuke. Berdin dio zein egoeratan dagoen. Eskura ordaintzen dut. Diskrezio osoa. Jose Antonio Elizondo Tfnoa: (948) 59 40 54

-**Baztango Olabidean**, baserri bat dago salgai; lasaitasunez haundiko parajea. Belagi eta bertze hainbertze herri-lur erabiltzeko eskubidea. 58 90 11 tfnoa.

LANA

-**Iruñean** neska euskalduna behar dugu Irailetik aurrera orduka etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko. Telefonoa 255121. Amaia Zubieta.

-**Solfeo klaseak** emanen nituzke udan, Iturenen. Interesatuak deitu 594249 telefonora.

-**Lehenbiziko eta zortzigarren** maila arteko haurrei klaseak emateko prest nengoke, uda aldean Iturenen. Nahi dutenek dei dezatela 59 44 39 telefonora. Ituren.

-**Bi neska gara** eta herrietako festetan lan egingen genuke; tabernetan, jatetxetan, etxeko lanetan, e.a. Deitu telefono hauetara: 510220, 610789

-**Frantzes klaseak** Silvia Mazi-zior-ekin. Tfnoa: 630108

SALEROSKETAK

-**Erosten dut**: Baserriak, bordak, errotak, argi indarreko zentralak (nuklearrik ez!), sagardoa egiteko tolaireak, gurdi zaharrak, teilak, tari-mak eta solibo zaharrak. Informazioa: Ezkalo Jauna. Tfnoa: 594054

-**Ordenadore** polit eta kottor bat saltzen da. Amstrad markakoa da eta testuak prozesatzeko, kontabilitatea eramateko eta bertze 2 programa ere baditu. 50.000 pzta. Tfnoa: 631188

-**Egurrean egindako jangela** bat saltzen dut: 2 armairu, mahai torneatua eta 6 aulki. 30.000 pzta. Ezkalo jauna 59 40 54 tfnoa.

-**Idazmakina elektronikoa** saltzen da. CANON markakoa. Deitu 631188 telefonora.

-**Euskal ardi-zakurkumeak** erosten ditut. Eskura ordaintzen dut. Ezkalo jauna Tfnoa: 59 40 54

-**Karate egiteko bi jantzi** berri saltzen ditut. 2 zenbakia duen tailakoa (7-8 urtekoentzat) eta 3 zbk.koa bertzea (10-11 urtekoentzat). Biak 6.000 pzta. Tfnoa: 63 00 02

-**Brakos-Frances ehiza txakurkumeak** saldu nahi ditut. Ezkalo Jauna. Tfnoa: 594054

-**Ardi zakur eskoziarra edo Colli** bat saldu nahi dut. Informazioa: Ezkalo Jauna. Tfnoa: 594054

DENETARIK

-**Tafallako bikote batek** 8 hila-beteko haur batekin, pisu bat alokatuko luke uztailaren 15etik 31 arte. Deitu tfno honetara: 70 16 53

-**Ja Ja! umeendako Diskaren egilea** den Xabi Muguruza kontratatutua nahi baduzue, deitu tfno honetara: (943) 63 09 50

-**Trikitixa eta panderoa** jotzen ikasi nahi al duzu? Guk irakatsiko dizugu Sunbillan. Josune eta Ainhoa. Deitu aste tartean (943) 625048 telefonora

HARREMANAK

—**Jesus Almandozentzat** Bera-kar baten partez: Orain dela aspaldi zutaz gustatzen naiz, eta espero dut edozein egunen zurekin enrolatzea. Agur maitea.

—**Joxe Mari "vete" "txanpi"ri** doa zuzendua testu hau: entrena, entrena zara txikiena, ea haunditzen zaren. Goraintziak: Loro eta Zubietak.

—Nituen kantzontzillo politenak galdu nituen lehengo astean Lesakan. Ziur asko, artadiren batetan egongo dira. Haien berri daukan rubioren bat balego, mesedez idatzi helbide hobetara: Sargento 1º Txakal Cuartel de Infanteria Pamplona.


ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU. Testua: ttipi-ttapa Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188	ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!! IZEN-DEITURAK HELBIDEA HERRIA ttipi-ttapa Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188
--	--



Ahari kolpea	▼	Da, niri	▼	Arabeen azoka	▼	Koldarra
Itxura ederrekoak				Barojaren etxea		
►		▼		▼		▼
	►					
Ordotsak						
►						
	▼					
Argigabe		Ipurtzuloa	Nor plurala	Modua		
			Joaki naiz	Errekak		
►		▼	Edo			Kontso- nantea
			Röntgen			Suge tzar
Haurdun	►		▼		Pare bat	▼
Erronkari-ko ibaia					Famatu	
►			Basa animalia	▼		►
			Bokala			
Inter- jekzioa	►		Andere zaharra	►		
Behizain			Kantoi			
►		▼	Gipuzke- raz, zen	►		Kontso- nantea
			Ero			Lakarra
500	►	Azkena birritan	▼	Karrika	►	▼
Goñ aldekoa		Lehor		Bokala		
►		▼		▼	Atzizkia	►
					Barazki mota	
	(Errep.) Distira	►		Auzo, hitz elkar.	►	▼
	Rutenioa			Euskal fonema		
►	▼			▼		Zero
						Mila
Itsasoko likidoa	►		Kargak	►	▼	Kontso- nantea

ttipi-ttapa eremuan, Lanbide Heziketa eta BBB nahiz UBirako ikastetxeak dituzten herriak

ENBIDO



Lesakako Udalak
besta onak opa dizkizue
Lesakar guziei